



## On mozorro

Bost herritan inauteriez gozatzeko aukera izanen da larunbatean / 9-17



## Emakumeen garra antolatzaera / 2-3

**Murgiltze ereduaren aldeko hamar arrazoi eman ditu mankomunitateak / 5**

**Hiriberri Arakilen argiteria publikoan LED argiak auzolanean jartzen ari dira / 6**

**Zabaleta vs Martija, bi arakildarren arteko borroka gogorra Binakako finalderdien lehen jardunaldian / 21**

**Kerobia taldeak 20 urte bete ditu, eta itzuli da, taldekide sakandar batekin: Lur Larraza / 23**

**Sakanaoptika**  
optometria • audiometria  
kontaktoologia

*Ongi pasa inauterial!*

Intxostia zeharbidea 10 (Altsasu)  
948 563 124 | [www.optikasakana.com](http://www.optikasakana.com)



# Antolatzearen beharra azpimarratu dute

Asteartean, 20:00etan, Altsasuko Foru plazatik abiatuko den manifestazioan parte hartzera deitu du Sakanako mugimendu feministak. Emakume langileen eskubideen defentsan kalera ateratzeko deia egin du

**Alfredo AIVARO IGOA** SAKANA

Emakume Langileen Eguna izanen da asteartean, martxoaren 8an. Hura prestatzeko hainbat kolektibo eta iritzitako emakumezkoak elkartu dira. "Bakoitzak bere aldarrikapen propioak ditu, edo ardatz batzuei erantzuten diete. Asanblada irekien bitartez horiek bateratzea izan da gure helburua. Eta manifestazioan bakoitzaren ahotsak edo aldarririk entzuteko aukera izanen da".

Izan ere, "egunero zapaltzen, erasotzen eta erailtzen gaituen sistema heteropatriarkal, kapitalista, arrazista, kapazitista hau kiskali nahi dugu". Sakanako mugimendu feministako kideen iritziz, "jendartearen zati handiaren dako, eta bereziki emakumeondako kriminala eta jasan ezina den eredu honekin bukatu nahi dugu". Azaldu dutenez, "den-dena erraustu" nahi dute, "bizitzea merezi duen mundu bat eraikitzeko. Horretarako, Feminismoa da bidea. Ezinbestekoa da feminismoa".

Eta gizarteak "indibidualismo-rantz bulkatzen" badu ere, mugimendu feministak "lan kolektiboaren aldeko apustua egiten dugu". Horregatik, elkarri "hel-tzeko" deia luzatu dute, "ezagutarazi eta partekatu ditzagun borrokak, zapalkuntzak, aldarrikapenak, eta proposamenak, urte urte erakutsi baitugu elkarrekin geldiezinak garela".

## Aniztasuna

Irizpideak bateratzea erraza izan dela azaldu dute: "gure feminismoa anitza eta guztioi irekia izan



Sakanako mugimendu feministako kideak astearteko manifestaziora dei egiten.

## "BIZITZEA MEREZI DUEN MUNDU BAT ERAIKITZECO, FEMINISMOA DA BIDEA"

behar da, gure borroka eta antolakuntzan denok egon behar dugu". Gainera, "plazak, kaleak, txokorik txikiak borroka feministaz betetzera" deitu dute Sakanako mugimendu feministatik, "antolakuntza espazio guztiak feminismoz busti behar ditugu. Elkarrekin, indartsu eta batuta egon behar dugu hainbeste esfortzuri esker lortutako eskubide sozialen atzerapausoei aukerarik ez emateko".

Gaineratu dutenez, "mezua da zapaltzen gaituen sistema honi sua ematea, buelta ematea". Ho-

rregatik, "sistemak dauzkan makina bat zapalkuntzari errepertatuko diegu. Baina zaintzari espazio berezi bat eskaini nahi diogu".

Berriki izandako eraso matxistak ez die planik aldatu feministei. "Halakoak egunerokoak dira ia-ia. Horrek argi uzten du emakumezkoak jasaten dugun indarkeria gertukoa dela, leku eta esparru guztietara zabaltzen da. Hori oinarrian hartuta, argi utzi nahi dugu horrek ez duela etenik. Kaleak hartu behar ditugu, antolatzen, saretzen, indartzen eta autodefentsa feministaren beharraren aldeko aldarria egiten segi behar dugu. Hori gizarte osoari eragiten dion gaia da". Ziurtatu dutenez, "borroka hau geldiezin da eta denon artean bakarrik lortuko baitugu Sakanako eta Euskal Herri feministak bat".

## Martxoak 8 dela eta antolatutakoak

### Martxoak 4, ostirala

- **18:00** Hitzaldia: *Gaur egungo emakume langilearen egoeraz*. Altsasuko Gure Etxea eraikina. Itaia.
- **19:30** *Anderea* dokumentalaren emanaldia eta solasaldia Yolanda Mazkiaran Zelaiarekin. Irurtzongo kultur etxea. Sarrera doan.
- **21:00** Bertso afari feminista: Idoia Granizo eta Sarai Robles. Gai jartzailea: Jone Rubio. Altsasuko Kukuerreka elkarte. Errefaillak.

### Martxoak 5, larunbata

- **12:00-14:00** Txoko lila, berdintasunez hezteko gunea. Etxarri Aranazko plaza. Etxarri Aranazko Udala.
- **12:00-14:00** Joskintza taldeko lanen erakusketa. *Josi emakumeon arteko aliantzak!* Gizarte kapitalistaren aurrean: josi, sortu, berrerabili. Etxarri Aranazko plaza. Emhari, Etxarri Aranazko joskintza taldea.

### Martxoak 6, igandea

- **19:00** Lorena Arangoaren *Emimismada* antzerkia. Irurtzongo kultur etxea. Irurtzongo Kultur Kontseilua eta Udala.

### Martxoak 8, asteartea

- **12:00** Bilkura. Etxarri Aranazko plaza.
- **13:00** Pintxo Morea lehiaketa. Uharteko Arakil.
- **16:00** *Cuidados, empoderamiento feminista y salud* hitzaldiaren proiektzioa eta kafe tertulia, Uharteko Arakil.
- **18:00** Kontzentrazioa: *Emakume langileok askatzeko, sozialismoa eraiki*. Lakuntzako plaza. Itaia.
- **19:00** Elkarretaratzea. Uharteko Arakilgo plaza.

- **19:00** Kontzentrazioa. Arruazuko plaza.
- **19:00** Kontzentrazioa. Arbizuko plaza.
- **19:00** Manifestazioa: *Emakume langileok askatzeko, sozialismoa eraiki*. Altsasuko Foru plaza. Itaia.
- **20:00** Kontzentrazioa: *Antolakuntza feminista gure garra. Zapaltzen gaituen sistemari sua!* Irurtzongo Foru plaza.
- **20:00** Manifestazioa: *Antolakuntza feminista gure garra. Zapaltzen gaituen sistemari sua!* Altsasuko Foru plazatik. Sakanako mugimendu feminista.

### Martxoak 10, osteguna

- **18:00** Literatura Geraldia. *Nirliit* liburua solasaldia Aiora Jakarekin. Irurtzongo Pikuxar elkarte. Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzua.

### Martxoak 12, larunbata

- **13:30** Arakilgo emakumezkoen bazkaria (txartelak udaletxean). Ondoren Arakil ibarreko emakumezko helduei omenaldia. Etxarrengo Iratzar jatetxea. Arakilgo Udala.
- **16:30** Lorena Arangoaren bakarriketa. Arakilgo Udala.
- **19:00** Alazne Etxeberriaren *De esto también se sale* antzezlan. Olatzagutiko kultur etxea. Olatzagutiko Udala.
- **21:30** Afaria eta Lorena Arangoaren emanaldia. Iratxo elkarte. Izena emateko 4an eta 6an, 19:00etik 19:30era kultur etxean edo 5ean, 20:00etatik 20:30era Iratxon.

### Martxoak 14, astelehena

- **16:30** Ameli eta Xirrikituen jostunen ipuin kontalari musikatuak. Akelarre ludoteka. Olatzagutiko Udala.



**EGOKI**  
Ventanas PVC Leihok  
www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea · Olazti

**GIDARIDUN LEHIO BERRIAK**  
Mugarik gabeko estetika moderna

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea



**Martxoak 19, larunbata**

• **18:00** Ainhoa Carreras Igeltzekin Afro urban dantza, dantzaren bidez ahalduzko. Iruztungo gimnasioa.

**Martxoak 20, igandea**

• **11:00-14:00** IX. Lilasterketa. Olatzagutia. Izena emateko: [berdintasuna@sakana-mank.eus](mailto:berdintasuna@sakana-mank.eus) Altsasuko eta Sakanako Berdintasun Zerbitzuak, Anitzartean kulturartekotasun zerbitzua eta Jarduera Fisiko eta Kirol Zerbitzua.

• **19:00** Andreina Jolineren kontzertua. Pikuplaza (eguraldi txarrarekin Barazkigune).

**Martxoak 23, asteazkena**

• **18:00** Zinemara irteera, Foru plazatik.

**Martxoak 25, ostirala**

• Berdintasunaren aldeko Scaperoom-a. Izen ematea taldeka egin behar da, eta parte hartzeko txanda emanen zaie. Izena emateko: [berdintasuna@sakana-mank.eus](mailto:berdintasuna@sakana-mank.eus)

**Martxoak 26, larunbata**

• **19:00** eRRe Aldarri bat bertsoz antzezlan. Olatzagutiko kultur etxean. Olatzagutiko Udala.



# "Emakumeok askatzeko, sozialismoa eraiki"

**SARA LOREA ETA JAIONE SALDAÑA SAKANAKO ITAIAKO KIDEAK**

Emakumezko langileen arazoei panorama politikoan lekua egin eta arazoei aurre egiteko proposamen politikoak garatzeko sortu zen Itaia

SAKANA

Duela hiru urte sortu eta emakume sozialistak saretu ditu.

**Zer da Itaia?**

**Jaione.** Emakumeenganako zapalkuntzaren fenomenoak identifikatu eta hauei aurre egiteko proposamen politikoak garatzen hasi ginen, ordura arte zeuden hainbat mugimenduetatik eta instituzioetatik egiten zen eta egiten den emakumearen auziaren analisiarekin ez baikeen guztiz bat egiten. Gainera, emakume langileon zapalkuntzaren gaintze erreal baterako aukerarik edota proposamen politikorik ez genuelako ikusten. Emakume auzia beste modu batera lantzeko beharra sumatu genuen, analisi egoki bat eginez, eta zapalkuntza honen gaintzera bideratutako proiektu politikoak antolatzen hasi ginen.

**Zein da Itaiaren egitekoa?**

**Sara.** Batik bat emakume langilearen analisi osatuago bat egitea: emakumeon zapalkuntzak, edota bigarren mailako subjektu gisara sozializatua egoteak, jendarte honetan betetzen duen funtzioa mahai gaineratzea eta honi aurre egiteko proiektu politikora ekarpena egitea, hortaz, emakume langileak proiektu honen baitan antolatzea.

**Nola lantzen du egiteko hori?**

**J.** Orain arte, batez ere ideologia eta antolakuntza lanean zentratu izan gara. Emakumeon babesa antolatzeke lanketa ideologikoa garatzea ezinbestekoa zaigu. Hemendik aurrera ekarpen praktikoagoa egingo duten tresnak martxan jartzen hasi gara.

**Zein ekarpen egiten du Itaiak?**

**S.** Lehen aipatu izan dugun bezala, emakume langileenganako zapalkuntza ez da fenomeno isolatu bat, sistema kapitalista batean bizi garen heinean, hamaika zapalkuntza dira osotasun horren baitan. Gure ardura, zapalkuntza honek jendarte egituraketa honetan betetzen duen



Sara Lorea eta Jaione Saldaña. UTZITAKOIA

## "SISTEMA KAPITALISTAK BETIKOTZEN DU EMAKUMEZKOEN ZAPALKUNTZA"

papera ikusaraztea da, zein funtzio bete izan dituen historian zehar eta zein funtzio betetzen dituen gaur.

**Zer erlazio du mugimendu feministarekin?**

**S.** Ez dugu harreman jarraitirik, bai egon direla koordinazio momentu puntualak, baina printzipioz ez dugu erlazioirik.

**Astearterako zer mezu?**

**J.** Emakume langileon bizi baldintzak okerrera doaz egunez egun: lan partzialak, soldata baxuak, behin behineko lanak... hori zaintza lanetan dugun ardurari oso lotuta dago, non umeen zein adinekoen zaintzak, etxean egin beharreko lanak, lan baldintza txarrak onartzera behar izaten gaituzten. Pandemia testuinguruan, estatu eta administrazio publikoek geroz eta zerbitzu gutxiago bermatzen dituzte, hortaz, zama handiagoa

emakume langileengan. Biek langileon bizi baldintzak okertzea dakarte, eta alderdi politikoek ez diote gure zapalkuntza egoerari aterabiderik ematen, kontrara, guzti hori indartzen dute proposamen feministekin aurpegia garbitu nahi badute ere. **S.** Gainera, jendarte batean indarkeria matxistaren adierazleek gora egiten jarraitzen dute, garapen teknologikoak indarkeria forma berriak sortu ditu: sare sozialen bidezko erasoak, jazarpen sexual birtuala, kontrol sozialaren areagotzea... komunikabide, sare sozial, zein pornografiak emakumeon gaineko sexualizazioa eta indarkeria gauzatzen dituzten figurak elikatzen dituzte. Zapalkuntza honen gaintzeak, ez du tokirik sistema kapitalistaren baitan, berau baita zapalkuntza hau betiketzen duena, interes ekonomiko eta politikoak bermatzen dizkiolako. Esplotazio eta zapalkuntzekin amaituko duen proposamen politiko bat garatu behar da, hau da, sozialismoa. Emakume langileok sozialismoaren alde antolatuta gaitezen, hainbat zapalkuntza formen aurka borrokatuz, denon askatasuna lortu arte!

## GUTUNA

## M8

**SILVIA MARAÑÓN**

ETXARRI ARANAZKO ALKATEA

**OIHANA OLABERRIA**

ARAKILGO ALKATEA

**OLATZ IRIZAR**

ZIORDIKO ALKATEA

Asteartean martxoak 8 izango da berriro ere. 2019ko eta 2020ko greba feministekin jendarte astindu genuen. 2021ean ere pandemia erdian biltzeko gai izan ginen, eta urtero bezala feminismoaren ahotsa ozen entzun izan zen Sakanako kaleetan.

Aurten ere horrela izango da. Izan ere emakumeen eskubideen defentsan, bidea gutxika egiten bagoaz ere, oraindik borroka luzea dugulako aurretik. Egutero ditugu mintzagai erasoak, soldata arrakala, zaintza lanekiko mespretxua, festa guneeetan libre izateko aukera falta, emakumeok politika karguetan aritzeko trabak edota emakumeok kirolean jasaten ditugun bereizkeriak.

Emakumeok gure egunerokoan ditugun bizipenak matxismoak ziprizzintzen ditu goitik behera eta horregatik martxoaren 8an tinko eta ozen aterako gara kalera.

Horregatik guztiarengatik, eta feminismotik Sakana justuago baten alde borrokan jarraitzeko gure asmoa irmoa delako, datorren martxoaren 8an arratsaldeko 20:00etan Altsasuko Foru plazan elkar ikusiko dugu mugimendu feministak deituriko manifan.







ASTEKOA

MAIALEN GALARZA IZAGIRRE

## "Momoxarro hua, ni neu, nintzan"

Inauteriak hildakoen munduarekin eta negutik udaberrirako trantsizioarekin lotutako tradizioa dira. Honi jarraiki, animaliekin eta lurrarekin harremana dute. Izan ere, moxorroaren helburuetako bat animalien antza hartzea da, azken honek duen karga sinboliko ilun eta maltzurragatik, antza denez. Etxeko arropa zaharrak, narruak, lastozko txapelak, kukurutxoak, farak aukeran, eta ezinbestean, aurpegia estaltzeko maindiera eta makila eskuan, sekulako korrikaldiak egiteko prest, gure momoxarroak.

Jo, beldurtu, korrika eginarazi, liluratu... asko dira pertsonaia mitiko hauen helburuak. Ikara sorrarazteaz gain, begiradak bereganatzea da haien desira. Nor da, nor da? Bera nola iten den korrika, bildurra ematen dau aizu!... Herritarren erreakzioa da euren nahi ahaltua. Urdaingo momoxarroen artean, istorio ezkutu bat dugu. Ezaguna ez den baina gogora ekarri nahi dudana gertakari zirrarragarria. Hots, gerra ostean, herriko zenbait neska gazte moxorroturik atera ziren,

ondorengo salaketen arriskuari uko eginez.

"Guk, ordia, momoxarro itia libre ez, eta ixo! ez genduen ezertxo ere esan, gu ixilik. Gue anai zaharrena, lanetik heldu zala, kalien momoxarruek ikusita, halaxe errepatu zan. hor bajok ba,

norbait infernuko mikelate jantzita. Eta momoxarro hua, ni neu nintzan".

Sakanerrian argitaratu zituzten Amparo Lizarragaren hitzak. Inauteriak debekatuta zeudenean, eta are gehiago, emakumeek parte hartu ezin zutenean, Urdaingo neskato jostun gazteak, euren saioetan moxorroa prestatu eta kalera atera ziren. Herriko lilura zein gorrotoa bereganatuz. Jakin gabe, garai berri bat ekarri zuten.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). **GUAIXEK** eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitulu bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / [gutunak@guaixe.eus](mailto:gutunak@guaixe.eus)

## HARA ZER DIEN

### Osasuna eskubide bat da. Zigorra ez.

#### SAKANAKO SARE

Esaldi hori euskal presoak artatu ohi dituen sendagile bati egindako elkarrizketa batetik aterata dago, eta haren oihartzuna belarrietan gelditzen da luzaroan Lander Garrok zuzendu duen eta berriki estreinatu den *Tipularen sehaska kanta* pelikula zoragarria ikusi ondoren. Jurista baten hitzak zorroztera etorri aurretik, kome ni da zehaztea gure asmoa ez dela hemen zalantzan jartzea estatu baten eskubidea ordenamendu juridikoaren kontrako jokabideak zigortzeko. Baina zuzena da azpimarratzea, ordea, legeak eta zuzenbidea biziaren eta jendearen zerbitzuan daudela eta ez alderantziz.

Izutzen du ohartzek Miguel Hernández poetaren hitzen eta oroitzapenaren gaurkotasunaz; izan ere, pelikula honetan oso modu egokian berreskuratzen da idazlea, hain juxtu aurtengo martxoan laurogei urte betetzen direlarik kartzelan hil zenetik, gaizki tratatutako eritasun baten ondorioz. Adierazten zaila da haren *Nanas de la cebolla* (Tipularen sehaska kanta) izena daramaten bertsoak entzuteak sortzen duen zirrara, kartzelak pertsonen bizitzan eta, beraz, osasunean eragiten duen kaltearen latza gogora ekartzen duenean. Miguel hil eta laurogei urtera, kartzelak biziak irensten dituzte oraindik ere, are okerrago orain, kartzelen abizena "demokratikoak" delarik eta, zenbaitetan, gainera, oheburuan Miguel Hernándezen poema liburuekin lo egiten duten politikari "aurrekariok" kudeatuta.

Ongi etorri Garroren eta Sareren pelikulari, gai baldin bada kontzientziak astintzeko eta bide berriak irekitzeko jadanik berandu datorren gogoeta honetarako. Espetxe politikaren arloan erabateko aldaketari heldu behar zaio lehenbailehen. Kartzelak hustu behar dira, orain, arazo sortzaile direlako, ez soluzio sortzaile; biziarekin eta osasunarekin bateraezina direlako. Bai, ohar hauek orokortasunez egitera ausartzen gara, are gehiago, motibazio politikoengatik preso, Euskal Herriko beren etxeetan oraindik ez dauden 190 pertsonaz ari garenean. Hori guztiak espetxetik ateratzea bizia, osasuna eta elkarbizitzarako oldarra izango da gure gizartearentzat. Espetxe politikaren aldaketa hori bulkada sozial handi batek baizik ez du ekarriko, hain handia non erabakiak hartzeko ahalmena dutenen borondate politikoen norabidea ezarri ahal izango baitu.

## URDIAINGO MOMOXARROEN ARTEAN, ISTORIO EZKUTU BAT DUGU

## GUTUNA

### Hausterre egunean: gerrarik ez!

#### JOSEBA BARRIOLA

Garizuma, penitentzia egunak. Aurtengo garizuman sufrimendura kondenatu gaituzte. Nork? Ez inongo jainkorik, mundu honetako botere nagusiek baizik. Garizuma berezia, bada, zeren munduko bekatari handienek, horiek, ezartzen digute, bizi baizik nahi ez duen jende xumeari, "dies irae, dies illa" delakoa, hau da gerra, baina ez berrogeialdian, urte osoan baizik. Ez da bada, ezinbestez, jasan behar dugun garizuma, ekidin dezakegun sufririkarioa baizik. Horrela bada, egoera tragiko honetan *Gerrarik ez* aldarria ozen zabaltzea premiazkoa dugu.

Klima aldaketa, energiaren agortzea, uholdeak, suteak, lehortek,

pandemiak... eta, orain, gerra mehatxu nuklearra. Gerran herri-tar guztiak izango gara kaltetuak: hildakoak, etxegabetuak, garestitze ikaragarriaren ondorioz muturreko pobrezia hurbilago ezagutuko ditugu. Eta guztien artean pertsona zaurgarrienak haurrak eta adineko pertsonak, eta bereziki bizitzaren sortzaile eta zaintzaile nagusienak, emakumeak, gehien sufrirituko dutenak izango dira. Gerrak larrialdi klimatiko, energiaren eskasia, zerbitzu publikoen hondorapena eta estatuen zorra finantziarioa areagotuko ditu.

Bestalde, gerrahonekonuramiserableak ekarriko dizkie armagintzako enpresa handiei eta energia enpresa multinazionalei. Guztion miseria, enpresa kriminal horientzat etekinak handitzea aukera.

Horregatik, lau haizeetara, kaleetara eta plazetara hedatu

beharko genukeen oihua "gerrarik ez" da.

*Gerrarik ez!* esan nahi du: Errusiako Armada Ukrainatik kanpora eta NATO desegitea. Osasungintza publikoaren defentsan Iruñean egin zen manifestazioan 11 urteko gaztetxo bat entzun nuen, megafonoa eskuetan "gastos militares para escuelas y hospitales" oihukatzen.

*Gerrarik ez!* Aldarriak esan nahi du herrien askatasuna eta herrien arteko elkartasuna. Ukraina aske, eta Donbasseko herritarrei autodeterminazio eskubidea onartzea. Donostian gerraren kontrako manifestazio batean emakume gazte errusiar batek parte hartu zuen. Kartel bat zerman eskuan. Kartelean bi bihotz: Errusiako banderaren kolorez egina bat, eta Ukrainako banderaren kolorez egina bestea.

# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

#### GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika  
[info@gkomunikazioa.eus](mailto:info@gkomunikazioa.eus)  
948 564 275 (3 luzapena)  
619 821 436  
Ainhua Etxeberria Pikabea  
[gk@gkomunikazioa.eus](mailto:gk@gkomunikazioa.eus)  
618 640 056

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
[admin@guaixe.eus](mailto:admin@guaixe.eus)

#### Zuzentzailea:

Patxi Flores Lazkoz

#### Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

# Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



#### Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa  
[guaixe@guaixe.eus](mailto:guaixe@guaixe.eus)

#### Erredakzioa:

Maider Betelu Ganboa  
[kirolak@guaixe.eus](mailto:kirolak@guaixe.eus)  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
[kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

#### Maketatzailea:

Lune Trecet Obeso  
[maketazioa@guaixe.eus](mailto:maketazioa@guaixe.eus)

#### Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano  
[publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)

#### Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde  
[fundazioa@guaixe.eus](mailto:fundazioa@guaixe.eus)

#### ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
618 882 675



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua



Haurrak Irurtzongo Atakondoa eskola publikotik ateratzen. ARTXIBOA

## D ereduaren aldeko dekalogoia zabaldu du mankomunitateak

Murgiltze eredia hautatzeko arrazoiak eman ditu, gurasoek zalantzarik izan ez dezaten

### SAKANA

Heldu den astean Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan ikasleak matrikulatzeko epea zabalik egonen da. Hori dela eta, Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak *Ez zaigu arrazoirik falta* izeneko dekalogoia zabaldu du. D ereduaren edo murgiltze ereduaren aldeko hamar argudio irakur daitezke dekalogoan gaztelaniaz, arabieraz, frantsesez, ingelesez eta euskaraz. Euskara Zerbitzuak lehenik eta behin jakinarazten du euskara ez dakiten guraso askok D eredia hautatu dutela. Baita murgiltze ereduak bidea egin duela eta milaka haur eta gazte ikasi dutela han ere. Jakinarazi du gehiago direla euskara eskolan ikasi dutenak etxean ikasi dutenak baino. Bestetik, jakinarazi du hizkuntzak barneratzeko unerik aproposena haurtzarora dela.

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzutik argi utzi nahi izan dute euskara umearren etxeko hizkuntza ez izatea ez dela traba euskara ikasi eta etxeko lanak egiteko. Eskolaren eta inguruaren eraginez D ereduko haurrek gaztelania ere ongi ikasiko dutela azaldu dute Mank-etik. Bestalde, D ereduko ikasleek ikastetxean ikasi ez dituen beste hizkuntza batzuk heldua denean ikasteko erraztasun gehiago dituzte. Eredu horretako ikasleek eremu profesionalean aukera gehiago dituztela ere azpimarratu dute. Euskararen ezagutzak ingurua sakonago ezagutu eta ulertzeko aukera ere ematen duela azaldu dute Euskara Zerbitzuko arduradunek. Eta, azkenik, euskarak, hau da, gizarte harremanek, kultur produktuek, aisialdiko jarduerak eta bestek euskal komunitateko kide egiten du norbera.

# Bi ipuin interaktibo berri 'www.era.eus'-en

Webgune hori euskaraz ikasten duten 0-12 urte bitarteko haurren gurasoei zuzendutako plataforma da. Haurrak euskaraz hazi eta hezten ari diren gurasoei hainbat gomendio eta laguntza ematen zaie, eta makina bat baliabide

### SAKANA

Nafarroako toki entitateetako 28 euskara zerbitzuek, Sakanako Mankomunitatea barne, elkarlanean sortu zuten *www.era.eus*. Haren bidez euskara zerbitzuek gurasoei haurrak euskaraz hazi eta hezten laguntzeko gomendioak eta baliabideak eskaintzen dizkie, esate baterako: eskualde bakoitzean dagoen eskolaz kanpoko eskaintzaren berri eman, adin bakoitzari dagokion musika proposamenak, euskarazko filmen eta marrazki biziduna, aplikazioak eta jostailuak, ipuinak eta literatura, jolasa, hezkuntza, gurasoendako aholkuak eta ipuinak.

Mank-eko Euskara Zerbitzuko teknikariek azaldu dutenez, "ipuinak kontatzea oso onuragarria da haur eta gurasoen arteko lotura afektiboa sendotzeko, baita elkarrekin gozatzeko ere". Ipuin eskaintza zabala dago liburuetan, interneten, edota ahozko ondarean. Erak eskaintza hori zabaldu egin du, ipuin digital interaktiboan atala baitu. Joan den urtean mustutako atal horretan beste bi ipuin gehitu dituzte: *Anuska nire laguna, beti tinko* eta *Iletxipi, Eugiko mugalaria*. Guztira zazpi daude.

Teknikariek azaldu dutenez, "baliabide ezin hobea da irakur-



Webgunean dagoen 'Anuska nire laguna, beti tinko' ipuineko irudi bat. WWW.ERA.EUS

zaletasuna sustatzeko. Adinari begira, egoki-egokia da Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko haurrendako". Istoriok Euskokultur fundazioak eta Labrit Ondareak egindako ahozko memoriaren bilketaren funtsetatik hautatu eta eguneratuak izan dira, eta ilustrazioak Liebana Goñik egin ditu, istorioen pasarte bakoitza zehatz-mehatz gorpuztuz. Gainera, ilustrazio guztietan interakziorako puntuak daude, haietan sakatuta haurren esperientzia aberastuko duten animazioak, hotsak eta ahotsak.

Webguneako arduradunek gaineratu dutenez, "haurrek ipuin ilustratuak maite dituzte, irudiek bestelako dimentsio bat ematen baitiote istorioari. Baina, ipuina ilustratua eta interaktiboa denean, esperientzia areagotzen da, irakurketaren alde ludikoa nabarmen biderkatzen baita. Gainera, ipuinok era askotara erabil daitezke: hurrei bere kasa irakurtzen utzi, elkarrekin irakurri, ipuinaren pasarteak entzun, pasarteak entzun aurretik ilustrazioak elkarrekin aztertu..."



**SOLASALDIA**  
Izenburua: NIRLIIT  
Hizlaria: Aiora Jaka  
Tokia: IRURTZUN (Pikuxar)  
Eguna: Martxoaren 10ean  
Ordua: 18:00

Izena emateko:  
Sakanako Mankomunitateko  
euskara ([euskara@sakana-mank.eus](mailto:euskara@sakana-mank.eus))  
eta berdintasun  
([berdintasuna@sakana-mankeus](mailto:berdintasuna@sakana-mankeus))  
zerbitzuetan





# LED argiak auzolanean jartzen ari dira

Kontzejuaren argindar kontsumoa murrizteko eta dirua aurrezteko neurria da. Izan ere, elektrizitatearen garestitzearekin kontzejuari faktura handitu egin zaio. Lan erdiak eginak dituzte, aurki despedituko dute

## HIRIBERRI ARAKIL

Argindarraren prezioak gora eta gora egin zuen udazkenean. Eta, ondorioz, "ohikoren kopurua hirukoizten zuen faktura bat jaso genuen. Martxa horretan elektrizitateak kontzejuaren aurrekontua janen luke", azaldu du Javier Arrieta Anizek, Hiriberri Arakilgo kontzejuko presidentea. Horregatik, argindar kontsumoa murriztu eta horrekin faktura txikitzeke neurria hartzea erabaki zuten kontzejuan: LED argiak jarriko dituzte ohikoen orde. Dagoeneko argien erdiak jarri dituzte eta falta zen materiala iritsi denez, aurki despedituko dituzte egin beharrekoak.

Kontzejuko lehendakariak jakinarazi duenez, lanek 1.300 euro inguruko aurrekontua dute. "Argiteria publikoko farolak eta kableak berriak genituen, ez genuen dirulaguntzarik eskatu. Kontzejua da materiala ordaindu duena". LED argiak auzolanean jartzen ari dira. Elektrizitateaz



Farola bat herriko etxe batean. ARTXIBOA

dakien herritar bat eta laguntzen dion besteren bat ari dira lana egiten, auzolanean. Hiru behar dituzte guztia egiteko. Hiriberri Arakilen 18 eta 55 urte arteko herritar guztiek urtean bost auzolan egin behar dituzte.

Kontzejuak hamar deialdi egiten ditu urtean. Auzolanak larunbatetan izaten dira, 08:00etatik 14:00etara. Auzolanera joaten ez denak 40 euro ordaindu behar dizkio Hiriberri Arakilgo Kontzejuari.



UTZITAKOA

## Kontxiri esker ona adierazi diote

Bakaikuko dendak astelehenean itxi zituen atekak. Kontxi Etxeberria Solisek bakaikuarren omenaldi xumea jaso zuen larunbatean. Haien izenean alkateak lore sorta eskaini zion. Bitartean herria dendarik gabe ez gelditzeko, herri kooperatiba bat sortzeko pausoak

ematen ari dira. "Denda berriaren eskaintza eta zerbitzua egokitzen laguntzeko" bakaikuarren iritzia jaso nahi dute inkesta bidez. Koxko tabernan eta Bakarreoetxea elkartearen daude inkestak. Erantzunak emateko epea gaur despedituko da.

## Udalak Amandrea plazako zorua berrituko du

Aldi berean, lurpeko garajeko komunitateak hura iragazgaitzeko lanak egingen dira

## ALTSASU

Amandrea plazako garajeen jabekideak eta Altsasuko Udalak bat egin dute premia duten lanak egiteko. Izan ere, 1993an egindako plazako zoladura oso hondatuta dago eta, bestetik, lurpeko garajeei eragiten dieten euri uren iragazketa arazo larriak daude. Zehazki, garajeetara euria hiru tokitatik sartzen da: plaza inguratzeko duten etxebizitzetako perimetro elkarguneetatik, plazako lorategietatik eta plazatik oinezkoendako sarbidea duten eskaileretatik. Gainera, garajeko sabaiko morterozko estalduraren hondatze puntualak ikus daitezke iragazketek eragindako eremuetan, baita forjatuko habe batzuen narriadurak ere, horiek eusten dituen habearekin bat egiten duten tokietan.

Altsasuko Udalak Amandrea plazako zoladura birgaitzeaz arduratuko da. Horretarako, aurrekontu aldaketa onartu zuen eta diruzaintzako gerakineko 313.374,63 euroekin finantzatuko ditu lan horiek. Plazako garajeen jabekideek, berriz, 159.776,76 euro bideratuko dituzte lurpeko garajeetako sabaia iragazgaitzeko. Guztira 473.151,39 euro. Lanak aldi berean egingen dira. Lanak emateko deialdia udalak egingen du. Udalak aurrekontu aldaketa onartu ondoren, garajeen jabekideekin hitzarmena sinatuko du, dagokion zenbatekoa ordain dezan. Bukatzeko, udalak onartu eta kudeatuko du obra kontratatzeke espeditentea.

Bestetik, Altsasuko Udalak erabaki zuen 307.714,1 euro bideratzea frontoi ondoan estalpea egiteko. Geroa Baik proposatuta, Nafarroako Gobernuaren aurrekontuan jasota dago foru administrazioak udalari 300.000 euroko transferentzia egingen diola. Beraz, inbertsioa 607.714,1 eurokoa izanen da.

## LABek Sunsundeguirako etorkizun plana eskatu du

"Zuzendaritza eta Sodena ez dira gai lantegiari errentagarritasuna emateko"

## ALTSASU

LAB sindikatuek adierazi duenez, "Sunsundeguiaren etorkizuna jokoan dago. Gaur egun ez dugu planik eta ez dugu inbertitzailearik, benetako inbertsio plan bat falta da, azken hamarkadako murrizketek itotako langileek beregain ezin dutena hartu. Nafarroako Gobernuak eta Sunsundegui zuzendaritzak, Jose Ignacio Murilloarekin batera, langileek egindako ahalegina itzuli behar dute, inbertsio errealak eginez eta enpresak XXI. mendera ekarriko duen bideragarritasun plana eginez".

2008ko krisiaren ondoren, enpresaren egoerak okerrera egin zuen eta Nafarroako Gobernuak eta Sodena enpresa publikoak esku hartu behar izan zuten. Biek enpresa 2013an utzi zuten eta geroztik Sunsundeguiaren akzioen %51 zuzendaritzaren esku daude eta %49 langileen esku. LABendako "neurri hark ez zuen enpresaren sakoneko arazoa konpondu, errentagarritasunarena. Gaur egun arte inoiz iritsi ez den bazkide inbertitzaile baten bila ibili gara. Nafarroako Gobernuak berriro esku hartu behar izan du Sunsundegui, eta enpresa hiru aldiz erreskatatu du". Lehena, Sodenaren bidez, 1,7 milioi euroko mailegua 2016an. Enpresak lizentziak lortzeko, instalazioak hobetzeko eta enpresaren produktibitatea hobetzeko akordioa adostu zuen. Baldintza batzuk bete zirenez Sunsundegui ez zuen dirurik itzuli. Bigarrena, industria plan bat zuen bazkide bat bilatzeko helburuarekin, 1,1 milioi euroko banku-mailegu baten ekarpena egin zen 2020an. Eta, azkenik, pandemiaren ondorioz Sodenari 3,4 milioi euroko mailegua eskatu zion. LABek salatu du horregatik kontuak hobetu badira ere, "egoeraren zama langileen bizkar" dagoela.



# Abizenak euskal grafiaz jartzeko gonbidapena

Berastegui, Lacunza, Goicoechea, Garciandia, Razquin... Zure abizena horietako bat da? Zenbat aldiz pentsatu duzu abizena euskaratu beharko zenukeela? Hiru pauso eman behar dira

## SAKANA

Arbizu eta Etxarriko Udalek, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearekin eta Sakanako Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean, abizenak euskal grafia-rekin jartzeko kanpaina abian jarri dute, Euskaraz naiz leloarekin, eta herritarrak animatzen dituzte beren abizenak zuzentzeko pausoa egin dezaten. Deialdia bereziki guraso izateko bidean direnei edota 18 urtetik beherako seme-alabak dituztenei egin diete. Izan ere, helduek abizenak euskal grafiarekin jartzeko tramieta eginez gero, seme-alabei automatikoki abizena behar bezala erregistratua geldituko zaie.

Abizenak euskal grafiaz jartzeko hiru pauso eman behar dira. Aurrena, herriko Erregistro Zibil edo Bake Epaitegira joan eta esan abizenak euskaraz jarri nahi dituzula. Horretarako, zenbait agiri eraman behar dira. Batetik, nortasun agiri originala eta haren fotokopia. Adin txikioek gurasoen nortasun agiriaren fotokopia eraman beharko dute, eta 16 urtetik gorako seme-alabak dituztenek seme-alaben nortasun agiriaren fotokopia. Bestetik, bizi zaren herri berean inskribatuta ez bazaude, hitzez hitzeko jaiotza ziurtagiria. Horiekin batera, errolda-agiria. Adinez nagusia ez direnek gu-

rasoena ere eraman beharko dute. Eta, azkenik, familia liburu eta haren fotokopia, beti ere, ezkontuta egonez gero edota seme-alabarik izanez gero. Azken pausoa da Erregistro Zibilean edo Bake Epaitegian emandako eskaera orria norberaren datuekin betetzea.

Euskaltzaindiak onartutako zerrenda dago eta norberak [www.euskaltzaindia.eus](http://www.euskaltzaindia.eus) webgunean kontsultatu dezake, hizkuntza baliabideen atalean klikatu eta deituren atalera jo behar da. Tramitazioa bukatu ondoren nortasun agiria eta gainerako dokumentazioa berritzeko aukera dago.

## Euskalgintzak Mank-en laguntza eskatzeko aukera du

Ezagutza eta erabilera areagotzeko eta jarrera hobetzeko proiektuak lagunduko ditu. Eskaerak 31ra arte

## SAKANA

Sakanako euskalgintzari eta euskara sustatzeko jarduerari diruz laguntzeko deialdia egina du ibarreko erakundeak. Haren bidez, esaterako, honako jarduerak diruz lagunduko ditu: ezagutzatik erabilerarako jauzia egitea helburu duten egitasmoak, euskara ez dakiten euskal herritarrak euskarara hurbil daitezen helburua duten egitasmoak, euskararen ondarea jaso, gorde edota hedatzea helburu duten egitasmoak, euskararen hainbat alderdi aztertzea helburu duten jardunaldiak, euskalgintzan ibilbide oparoa izateagatik nabarmendutako pertsonak edo elkarrekin omentzeko egitasmoak, euskararen familia bidezko transmisioa sendotzea helburu dutenak, euskaraz irakurtzeko zaletasuna sustatzea helburu duten egitasmoak, euskarazko



Aizpeak antolatutako Kirola euskaraz.

kultura sormena bultzatzea helburu dutenak (hitzaldiak, erakusketak, kontzertuak, antzerki-emanaldiak eta lantegiak), etorkinen artean euskararen erabilera sustatzea helburu duten egitasmoak eta euskarazko jostailu, joko eta denbora-pasak.

**ikastolak**  
hezkuntza eraldatzen



**HH eta LH AURREMATRIKULAZIOA  
2022-2023**

**Martxoaren 7tik 11ra**



**IÑIGO  
ARITZA  
IKASTOLA**

ikastola@inigoarizta.eus  
San Pedro, 16. Altsasu  
948 56 29 51 / 606 03 09 66



**TXIOKA HAUR  
IKASTOLA**

txioka.haur.ikastola@inigoarizta.eus  
Santokristobarren, z/g. Altsasu  
948 37 30 23 / 689 45 41 68



**ANDRA MARI  
IKASTOLA**

etxarri@ikastola.eus  
Utzubartxiki, 3. Etxarri Aranatz  
Kale nagusia, z/g. Arbizu  
948 46 02 86

**ZUREA, GUREA, DENONA!**

**BAKARKAKO  
HITZORDUAK  
hartzeko aukera**



# Heldu den urteko kintoei pasa diete lekukoa

Iristeko desiatzen egon ondoren, beraien egunak dagoeneko pasa zaizkie aurtengo kintoei. Otsaila hasieran Burundak hartu zituen kinto ospakizunak. Inauteriekin batera ospatu dituzte Uharte Arakilen, Lakuntzan, Arbizun eta Etxarri Aranatzen

UHARTE / LAKUNTZA / ARBIZU / ETXARRI Lau herritako kinto ospakizunekin despiditu dira aurtengoak, hainbat herritan eginen diren kintada egunez aparte. Kintoak etxez etxeko eskean egon dira egun hauetako parranda finantzatu ahal izateko.

Guztira 85 gazte izan ziren ateburuan kinto ospakizunetako protagonistak: Uharte Arakilen 17, Lakuntzan 25, Arbizun 26 eta

Etxarri Aranatzen 17. Haietatik 43 ziren 2004an jaiotakoak. Horiiek dagokien urtean ospatu dituzte kintoak. Baina pandemiagatik joan den urtean kinto egunak behar bezala ospatzerik izan ez zuten 27 gazte elkartu dira ospakizunera, bederatziz Uharte Arakilen eta 18 Arbizun. Gainera, heldu den urterako eskarmentua pilatu dute Lakuntzako 15 kinto gaztek.



Kinto ubertearrak mozorrazteko joera dute.



Lakuntzakoek bitan egin zuten kinto eskea, baita enpresetan ere.



Arbizuarrak igandeko kinto eskea argazkirako eten zuten. MIREN ARREGI OLIVENZA



Bureina auzora txarangaz lagunduta joan ziren kinto etxarriarrak.

## Eraikuntza gehigarria

*Zure negozioaren erakusleiho!*

**MARTXOAK 25**

publi@guaixe.eus

661 52 32 45 eta 948 564 275 (Huzapena)







OLATZAGUTIA - MIREN ARREGI OLIVENZA

# Oraindik ez gorde mozorroak

Astearte inauteria pasa bada ere, garizuma betean Sakanako bost herritan mozorroak luzitzeko aukera dago oraindik. Hiriberri Arakil, Lizarraga, Altsasu, Olatzagutia eta Ziordiak ihote ospakizunak hartuko dituzte larunbatean

## HIRIBERRI ARAKIL

Txitera elkarreak gosaria, bazkaria, kirolak eta txapelketak prestatu ditu biharko, inauteri egunerako. Aittetarko ere bisitan joanen da iluntzean. Eta, harekin batera, moxorroak, koloretako zintadun txanoa, arpileraz edo zakuekin jantzitako eta eskuan erratza edota zigorra dutela. Azken horiek jendea berotzeko ohitura dute.

### EGITARAUA

#### Martxoak 5, larunbata

11:30 Trikipoteoa, Txitera elkarteak.

12:00 Herri kirolak.  
14:00 Mozorrotuen herri argazkia.  
14:30 Herri bazkaria. Ondoren mus, pintxazo eta partxis txapelketak.  
19:30 Sokatira eta txapela jaurtiketa.  
20:00 Aitittarko erre!

## LIZARRAGA

Koadrilak dagoeneko beraien mozorroei azken ukituak ematen ariko dira, larunbatean behar bezala luzitzeko. Izan ere, Lizarraga ihote ospakizunen atarian dago. Intxorreta kalean, Ergoienako udaletxe ondoan jarri dute hitzordua

lizerratar mozorrotuendako larunbat eguerdian. Handik herrian barna ibiliko den kalejira koloretsu bat abiatuko da. Herriko kaleetan barnako bidea Azilurri elkarteak despidituko dute, 14:30 alderako zuzendaritzako kideek bazkari ederra prest izanen baitute.

Majo bazkaldu ondoren, lizerratar mozorrotuak, atzera ere, kalez kale ibiliko dira. Baina arratsaldean puska biltza eginen dute. Garai batean eskatzen zen moduan, "iyotetako urdei puxkat" eskatuko dute; txistorrak, arrautzak eta dirua ere jasoko dute erronda horretan. Eta guztiarekin mozorrotuen afaria prestatuko dute.

## ALTSASU

Irudimen ariketa ugariaren emaitza kalean ikusteko aukera izanen da larunbat eguerdian. Izan ere, hiri ihotearekin altsasuar koadrilak gai edo pertsonaia bat hartu eta haren inguruan mozorrotuko dira. Mozorro festa alaitzeko musika izanen da eguerdi, arrats eta gauean. Bestalde, Inauteri Batzordeak eta Altsasuko Udalak altsasuarrei gogoratu diete heldu diren ospakizunak berdintasunean ospatu behar direla. Horregatik, etxeko eta familiako ardurak denendako direla gaztigatu dute. Aldi berean, gogorarazi dute ezezkoak ezetz esan nahi duela beti. Eratorik gabeko ospakizunak nahi dituztela nabarmendu dute. Azkenik, Altsasuko Udaletik gaztigatu dutenez, Gartzia Ximenez kalea oinezkoendako izanen da larunbatean, 12:00etatik 24:00etara.

### EGITARAUA

#### Martxoak 5, Larunbata Hiri inauteria

12:00 Haize Berriak bandaren kalejira.  
13:00 Rock Kalean, Foru plazan.  
19:30-21:30 Dantzaldia Ingenio orkestrarekin, Foru plazan.  
21:30 Afaria, Intxostiapunta gazte gunean.  
22:45-00:45 Dj, Intxostiapunta gazte gunean.  
24:00-02:00 Dantzaldia Ingenio orkestrarekin, Foru plazan.

## OLATZAGUTIA

Herri eta haur inauterien ondoren, olaztiarrek hiri inauteriarekin ongi pasatzeko aukera izanen dute larunbatean. Ohi bezala, lagun taldeak gai edo pertsonaiaren bat hartu eta hartaz mozorrotuko dira. Seigarren aldiz, mozorro onena aukeratzeko lehiaketa antolatuta du udalak. Lehia-

ketan koadrilek, taldeek eta 14 urtetik gorako pertsona guztiak eman dezakete izena. Horretarako, areto futboleko pistara joan beharko da martxoaren 5eko 12:00etan. Taldea edo parte hartzailea identifikatuko duen izen bat eman beharko da. Han izanen den zinegotziak bozketak apuntatzeko orri bat emanen die parte hartzaileei. Orri hori 14:00ak baino lehen bueltatu beharko zaio zinegotziari botoen zenbaketa egin dezan.

Epaimahaia hiru zinegotzik osatuko dute. Gainera, talde edo parte hartzaile bakoitzak gehienez 20 puntu eman ahalko dizkie hiru talderi edo parte hartzaileari. Talde batek ezin izanen du bere buruaren alde egin. Mozorroak baloratzeko orduan, honakoak hartuko dira kontuan: originaltasuna, egindako lana, antzezpena eta mozorroaren osagarriak. Mozorro lehiaketak honako sariak ditu: lehenengoak 150 euro, bigarrenak 100 euro eta hirugarrenak 50. Epaimahaiaren erabakia dantzaldian jakinaraziko da, 20:00etan.

### EGITARAUA

#### Martxoak 5, larunbata

12:00 Mozorro lehiaketarako izen ematea, areto futboleko pistan.  
Ondoren, karrozen irteera.  
17:00-19:30 Los Pasai txaranga.  
19:00-23:00 Raizti dj, plazan.  
20:00 Mozorro lehiaketako sari banaketa dantzaldian.

## ZIORDIA

Mozorroei gustua hartuta, ziordiarrek atzera jantziko dituzte bihar. Joan den larunbateko herri ihotearen eta astearteko haur inauteriaren ondoren, herri inauteriaren txanda iritsi da. Festarako egitaraurik ez badago ere, ziordiarrek mozorrotu eta eguerdi partean kalera aterako dira. Lagun arteko bazkariak ere egingen dituzte.

**BILTOKI**  
TABERNA • JANTOKER

Asteburuan bokatak BARRAN

948 562 348 - Altsasu

**Txalaparta**  
Taberna

Ongi pasa inauteriah!

948 467 070  
Zumalakarregi plaza  
ALTSASU





IHABAR - UTZITAKOA



ZIORDIA



ARBIZU - IRATI



ETXARRI ARIANATZ



IRURTZUN - MIREN



UHARTE ARAKIL - MIREN




LAKUNTZA



UNANU - MIREN



URDIAIN - FRANCIS



ITURMENDI - MIREN



BAKAIKU - MIREN





LAKUNTZA



URDIAIN - FRANCIS IRIGOIEN OSTIZA



ARRUAZU - AITOR SATRUSTEGI

Gasoleo A ibilgailuentzat  
 Gasoleo B nekazaritzarako  
 eta kalefakziorako

[www.iparoil.com](http://www.iparoil.com)

DISTRIBUCION  
 GASOLEO  
 94

**IPAR OIL**



**IPAR OIL**

**GASOLEO BANAKETA**  
 Sakanako bailara  
 Tel. 620 143430

**Langraiz Oka**  
 Los Llanos industriagunea  
 01230 Langraiz Oka (Araba)  
 945 371358 • 648 250975

**Santurtzi**  
 Aparkabisa industriagunea  
 48980 Santurtzi (Bizkaia)  
 945 371358 • 686 525761

**Urnieta**  
 Erratzu industriagunea - 201  
 20130 Urnieta (Gipuzkoa)  
 943 330311 • 646 716256





ARBIZU - IRATI ALTZELAI KARASATORRE



OLATZAGUTIA - MIREN



UHARTE ARANIL - MIREN



IHABAR - UTZITAKOIA



ALTSASU



ETXARRI ARANATZ - IRATI



IRURTZUN - MIREN



ARRUAZU - AITOR SATRUSTEGI



LAKUNTZA



ITURMENDI - IRATI







ITURMENDI - MIREN



ALTSASU



ARBIZU - MIREN



ETXARRI ARANATZ



BAKAIKU - MIREN



UNANU - MIREN



LAKUNTZA



ZIORDIA





ALTSASU



LAKUNTZA



UNANU - MIREN



URDIAIN



ETXARRI ARANATZ



UHARTI ARAKIL - MIREN



URDIAIN - FRANCIS



BAKAIKU - MIREN



IRURTZUN - MIREN



ZIORDIA





IRURTZUN - MIREN



ITURMENDI - MIREN



UHARTE ARAKIL - MIREN



IHABAR / UTZITAKOA



UHARTE ARAKIL



IRURTZUN - MIREN



ZIORDIA



UNANU - MIREN



ARRUAZU - AITOR SATRUSTEGI

107.3 FM  
**beleixe**  
 ONLINE ENTZUTEKO  
 GUAIXE.EUS





ALTSASU



IRURTZUN - MIREN



BAKAIKU



UHARTE ARAKIL - MIREN



ITURMENDI



ETXARRI ARANATZ



LAKUNTZA



URDIAIN



ALTSASU





2003ko kamarroak elkarte aurrean. ARTXIBOA

**Eneida Carreño Mundiñano eta Erkuden Ruiz Barroso** BAKAIKU

Kamarroa Bakaikuko herri ihoteetako pertsonaia da. Pertsonaia bakarra da. Edozein izan daiteke kamarro. "Nahikoa da soinean zaku bat jartzearekin". Duela 25 urte Euskara Batzordeak, gazte kuadrillak sustatuta, inauterietako pertsonaia berreskuratu zuten. Tartean Iñaki Urteaga historialari bakaikuarra zegoen. "Istoria bitxia da. Txikitatik aitona entzuten nion honi buruz. Txikitari entzuten genituen kamarroen gaia. Pertsona bat, bi edo hiru mozorrotzen ziren eta jendearen atzetik korrika joaten ziren makil batekin". Urteagaren aitona esan zion kamarro txikiak eta kamarro handiak zeudela, eta batzuk larunbatean ateratzen zirela, eta besteak asteartean. Pandemiaren eraginez aurreko urtean ezin izan zituzten ihoteak ospatu, baina aurten larunbatean 26an kamarroek 25 urteurrena ospatu zuten.

"Kasualitatez egun batean nire kuadrilla eta gu baino gazte txoagoa den kuadrilla bat elkartean geunden eta bertan zegoen liburutegi batean inauteriei buruzko liburu bat topatu genuen". Bakaikuko ihoteei eta kamarroei buruz aurkitu duten testigantza bakarra da. "Gizon hau bakaikuarra zen eta Olaztin bizi zen". *Carnavales de Navarra* deitzen da liburu. "Bertan kamarroak nola jantzen ziren, zakuzko arropekin baina modu

# Kamarroak, mende laurdena

Duela 25 urte Bakaikuko Euskara Batzordeak garai bateko herriko ihoteak berreskuratu zituen. Kamarroak ziren bertako pertsonaiak, soinean zaku jantziak daramana eta bakoitzak egokitzen duen pertsonaia

aldrebes batean jantzita eta makil handi bat zerratuta, zaparra deitzen dena. Domekan eta asteartean ateratzen zirela aipatzen zuten; asteartea egun indartsuena zelarik". Egundorretan, kamarroekin, goldea ateratzen zen eta zenbait kamarro "karetarekin" ateratzen zirela azaltzen zuten ere liburuan. Liburu horretan kamarroei buruz beste datu "oso bitxi" bat topatu zuten: "Beste kamarro batzuk artilezko jantzi bat eramaten zuten eta elkarri sua ematen zioten, eta aska batera eramaten zituzten ez erretzeko".

**BAKAIKUKO IHOTEAK EZ ZIREN GUZTIZ DESAGERTU, "PRIBATUAN" OSPATZEN ZITUZTEN**

Horrelakoak egiten zirela konfirmatzen zuten bi testigantza jaso ditu Urteagak, baina berreskuratutako inauterietan ez dute "halakorik" inoiz egin.

## Kamarroak

Bakaikuko inauteriak, berez, ez ziren galdu. Izkutuan ospatzen jarraitu zuten, oso modu xumean eta isilean. "Bakaikun ez zen etendura egon. Modu publikoan ez omen zen ezer egiten, baina kontatu izan didate etxe batean ama mozorrotzen zela eta etxekoei sustoa ematen ziela, edo emakume dirudun batzuk egun batean mozorrotu zirela eta irina bota zirela". Herriko jendea iri galdetuta, "ezer ez zela egiten" esaten omen zuten, "baina gero esaten zuten, 'baina beno...'. Herri inauteriak herritarrek gordetzen dituzte, eta, horregatik, elkartean aurkitutako libu-

rua eta herriko jendearen testigantzak izan ziren Bakaikuko inauteriak berreskuratzeko oinarriko informazioa. "Fakultatean bilatzen egon nintzen, baina herriko jendea iri galdetu genion ere". Hortik abiatuta ihoteak nola prestatu eta nola egin pentsatzen hasi ziren. Kontuan izanda Bakaikuko herri txiki bat dela, bi egunetan ateratzea gehiegi iruditu zitzaion, "gainera, parte hartzailea izatea nahi genuen, jendea animatzea". Horregatik, larunbatean babarrun jatea egitea eta goldea ateratzea pentsatu zuten, "goldea nire

**ELKARTEKO LIBURU BATEAN ETA JENDEAREN TESTIGANTZETAN OINARRITU ZIREN**

etxetik hartu genuen, oraindik jarraitzen dugu hartzen, 25 urte bete ditu".

"Kamarro zaku bat jarri eta dagoeneko izan zaitezke kamarro". Herri inauterietako pertsonaia bakarra da, baina denborarekin, 25 urte hauetan, aldaketak egon direla aipatu du Urteagak. "Belaunaldi berriak etorri dira eta bakoitzak bere grazia eta kolorea eman dio". Inauteriak egokitzen joan dira. "Ez da pertsonaia bat ezaugarri finko batzuk dituen. Bakoitzak bere modura egoki dezake".

## Aurrera begira

1997an lehenengo aldiz egin zutenean, oraindik ez zen Bakaikuko Gazte Asanblada existitzen, gaur egungo antolatzaileak, eta Euskara Batzordeak antolatu zituen inauteriak. Aurretik maskarak sortzeko tailer bat antolatu zuten, eta egunean bertan sorpresaz atera ziren. "Etxeetara joaten ginen eta sukaldaraino sartzen ginen...". Hurrengo urtean, jendeak mahaia etxeari aurrean prestatuta zituen. "Bigarren urterako asko aldatu zen". Ondoren, beste belaunaldi bat sartu zen gauzak aldatuz. "Oso dinamikoa da". Jendeak jantziak asko lantzen ditu. Norberaren sentimendu bat sortu da, "egun garrantzitsua da, polita".

Larunbatean, otsailaren 26an, beste urte batez kamarroak atera ziren Bakaikun. "Inolako handikeririk gabe berreskuratu genituen, ez dugu aurten ezer egin ere". 25 urte hauetan bitan ez dira kamarroak atera: "Ihoteetan ateratzen zen Borja akordeoilaria hil zenean; erabaki genuen ez ateratzea". Eta aurreko urtean, pandemiaren urtea, 2021ean.

25 urteurrena ez dute ospatu, baina Urteagaren eta antolatzaileen artean "zerbait handiago" prestatzea pentsatu dutela esan du bakaikuarrak, baina gauza bat eta beste proiektua "stand by-ean gelditzen da". Ihoteen ikuspegi zabal bat eskaini nahi dute, "adibidez, dokumental bat". Inauterien historia "beste mundu oso bat da". Erromatarren garaiko ospakizunekin hasi zirela diote, baita Europako zeinbait herrialdeetako erritu paganoeekin antzekotasunak dituztela ere. "Niretako garrantzitsuena da garai batean egiten zutena gutxi gora behera egiten dugula".



## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN  
BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA  
BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 /  
kultura@guaixe.eus

## OSTIRALA 4

ALTSASU Gazte agenda: Partxis  
txapelketa.  
18:00etan, Intxostiapunta gazte  
gunean.

ALTSASU Bertso afari feminista:  
Idoia Granizo eta Sarai Robles.  
Gai jartzailea: Jone Rubio.  
Errefailak-ek antolatuta.  
21:00etan, Kukurrekka elkarte.

## LARUNBATA 5

ALTSASU Gazte agenda:  
Inauterietako afaria eta DJ.  
18:00etatik aurrera, Intxostiapunta  
gazte gunean.

LAKUNTZA Iñaki Auzmendiren  
disco berriaren aurkezpena  
Juanmi Arzelus eta Ane Turcan  
musikariek. 16:30ean, kultur etxean.

## IGANDEA 6

ALTSASU Euskal preso  
eta iheslariak etxera  
elkarretaratzea.  
20:00etan, plazan.



OLAZTI Etxepare Saria irabazi  
duten albumen azalen  
erakusketa. Nafarroako Gobernuak  
euskara zerbitzuek antolatuta.  
Martxoaren 4ra arte. Astelehenetik  
ostiralera 14:00etatik 20:00etara.  
Liburutegian.

## ZINEMA

## ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO  
ARETO NAGUSIAN

*Todo ha ido bien* gaurkotasunezko filmaren  
emanaldia  
Ostirala 4: 19:00  
Igandea 6: 19:30

*Belfast* gaurkotasunezko filmaren  
emanaldia  
Osteguna 10: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO  
ARETO TXIKIAN

*Un amor tranquilo* filmaren  
emanaldia  
Igandea 6: 19:30

*El sastrre* zineforum filmaren  
emanaldia  
Osteguna 10: 19:00

## ASTELEHENA 7

ALTSASU Pentsio duinen aldeko  
elkarretaratzea.  
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

## ASTEAZKENA 9

IRURTZUN Errezital poetikoa:  
Miguel Hernandezen lanari  
buruzko errezitala.  
Iluna taldearen eskutik.  
18:00etan, liburutegian.


## OSTEGUNA 10

IRURTZUN Literatura geraldia.  
Solosaldua: Aiora Jaka *Nirliit*  
liburuaz.  
Mendialdeko euskara zerbitzuek  
antolatuta.  
18:00etan, Pikuxarren.



ZIORDIA Etxepare Saria  
irabazi duten albumen azalen  
erakusketa. Nafarroako Gobernuak  
euskara zerbitzuek antolatuta.  
Martxoaren 7tik martxoaren 25era  
arte. Astelehenetik ostiralera  
14:00etatik 20:00etara. Liburutegian.

## ZORION AGURRAK



Adei  
Martsuban 1ien 9  
urte!! Zorionak eta mila  
musu Lizerrako  
familiarren partetik



Alaitz  
Zorionak Alaitz zure  
10. urtebetetzean,  
muhu haundi bat  
etxekoekin partez



## BAZTERRETIK

AMAIA IPARRAGIRRE MENDIA (ZIORDIKO LIBURUTEGIA)

## Liburutegi anitza?

GUAIXEko txoko honetan idatzi  
behar dudana bakoitzean  
liburutegiko bazterretan  
murgiltzen hasten naiz.  
Liburu hau... bai, beste hori ez  
dakit... Murgiltze hori,  
berehala, kate koloretsu bat  
bilakatzen da, abenturazko  
liburu kolorea, historia liburu  
kolorea, liburu beltzak,  
amodiozko koloretakoak... eta  
hori guztia, irakurleei  
gomendatzeko liburu  
interesgarriak aurkitzeko.  
Bide hori egiten dudanean,  
beti ohartzen naiz kolore asko  
falta direla, zenbait hutsune  
badirela. Horrela da,  
liburutegiak anitzak izan  
beharko lirake baina ez da  
erraza hori lortzea. Hala ere,  
horretaz kontziente izateak  
pozten nau eta gainera, lan  
asko egiteko dagoela  
ohartarazten nau.

"Txapa" honen ondoren  
hementxe dituzue nire

gomendioak. Euskarazko  
azken liburuetatik hiru  
aukeratu ditut, bi eleberri eta  
poesia liburu bat. Lehena  
"Izurdeen aurreko bizitza" da,  
Kirmen Uribek idatzia da.  
Bere New York-eko bidaia  
errealean eta han bizitako  
denboran idatziriko eleberria  
da. Bertan, Rosika Schimmer  
sufragista eta bakezalearen  
bizitza ikertzen du. Kirmenek  
bere bizipenak eta  
Rosikarenak nahastu egiten  
ditu. Oso gustura irakurtzen  
den liburua da. Bigarrena,  
"Eraikuntzarako materiala",  
Eider Rodriguezena.  
Protagonistak bere aita hil  
zorian dagoenean atzera egiten  
du eta izan duen bizitza latza  
kontatzen digu. Aita  
alkoholikoa izatearen  
gogortasuna barruraino  
iristen zaizu. Eta hirugarrena  
"Elurra elurraren gainean",  
Castillo Suarezren poesia

liburua. Ni ez naiz poesia  
irakurlea baina oraingoan  
gustura irakurri dut. Nire  
buruari gogor egin eta saiatu  
ondoren pozik geratu nintzen  
irakurketa amaitzean. Polita  
iruditu zait irakurtzeko.

Gaztelaniako liburuetatik  
berri, bi aipatuko ditut.  
Lehena, *La trenza*, Laetitia  
Colombanirena. Hiru  
emakumeren bizitzak  
elkarrekin gurutzatzen dira  
eta garbi ikusten da  
norberaren jaioterriak erabat  
baldintzatzen duela  
emakumearen etorkizuna. Eta,  
bigarrena *Violeta*, Isabel  
Allendek idatzia. XX. mendeko  
gertakizun esanguratsuenak  
biziko dituen emakume baten  
istorioa da. Liburutegiko  
irakurleei izugarri gustatu  
zaie.

Hemen dituzue aukera  
interesgarriak, baina ez  
ahaztu liburutegi koloretsu  
horietan askoz gehiago  
aurkituko duzuela.

## DUELA 25 URTE...

Emakumeari buruzko 4.  
jardunaldiak

Antolatzaileen arabera "emakumeek ez dute ekintza-  
tan parte hartzeko beste aukerarik, horregatik dira  
oso arrakastatsuak martxoaren zortziko ekitaldi  
hauek". Urtean zehar aztertzen ez ziren gaiak azala-  
razteko baliatzen zituzten antolatzaileek. Iruñera  
zinemara joateko irteera antolatu zuten martxoaren  
4rako. Martxoaren 7an hitzaldia izan zen, haien  
egunean emakumezkoak elkartu zituen afaria izan  
zen eta, hurrengo egunean, udalak antolatuta, kafe  
tertulia eta antzerki emanaldia izan ziren.





## OROIGARRIA



## Gorka Larrea Ondarra

X.urteurrena  
(Bakaikun, martxoaren 3an)

Zenbat une gozo gogora zutaz oroitzean!  
Faltan botatzen zaitugu!

Arbizu eta Bakaikuko familia, maitasunez

## OROIGARRIA

## Gorka Larrea Ondarra

X.urteurrena

Ta elkartuko gara berriro gure betiko lekuetan  
Zabalduko ditugu besoak besarkatuz gure arimak  
Ta amestuko dugu gauen oraindik gelditzen zaiguna  
Zurekin batera...

Ez zaitugu inoiz ahaztuko...  
Maite zaitugu

Zure lagunak

## IRAGARKI SAILKATUAK

## HIGIEZINAK

## SALDU

**Pisua bajearekin salgai:** Etxarri Aranazko Santakitz kalean, Interesatuek deitu 669 156 117 tfnora.

## LANA/NEGOZIOAK

## LAN ESKAINTZA

**Cederna Garalar Elkar-teak pertsona bat kontratatu nahi du Aurrepirinio eta Zangozaldeko Sektore turistiko dinamizatu eta promozionatzeko:** Gutxieneko baldintzak Turismo arloan formakuntza, B gidabaimena eta kotxea edukitzea. Euskara, frantses eta ingeles hizkuntzetan B titulua edukitzeak ere puntuak emango ditu. Cvak [info@cederna.es](mailto:info@cederna.es) helbidera bidali "CV TURISMO DINAMIZATZAILEA" izenburuarekin. Epea martxoaren 7an, 14:00etan, bukatuko da. Argibide gehiago [www.cederna.eu/](http://www.cederna.eu/) [eus.webgunean](http://eus.webgunean) edo 948 206 697 tfnoan.

## IKASTAROA

**Desfribiladore ikastaroa:** Sorosleentzat, udal langileentzat, irakasleentzat edota lehen sorospenetan interesa duen edonorentzat. Martxoaren 21ean (aurretik online saio bat burutu behar da), 16:30tik 19:30ra Lakuntzan. Ikastaroak zati torikoa eta zati praktikoa izango ditu, teorikoa online izango da eta derri-gorrezkoa izango da zati praktikoa egin ahal izateko. Parte hartzaileek ikastaroa egin izanaren ziurtagiria jasoko dute.

Izen emate epea martxoaren 9 amaitzen da. Deitu Mank-eko kirol zerbitzura 948 464 866, [kirolak@sakana-mank.eus](mailto:kirolak@sakana-mank.eus).

## LEHIAKETA

**Artea eta Ospitaleak lehiaketa:** Nafarroako ospitaleko psikiatria pabeloian dagoen horma batean jarriko den lana egiteko, 18 - 30 urte bitarteko artistei zuzendua. Helburua espazio bat sortzea da; partekatzen duten pertsona guztiak humanizatzeko; profesionalak, pazienteak, senideak, lagunak Nafarroako Gobernuko 5650 euro emango dio artistari lana eta honen gauzatzegatik. Interesa duten artistek beren proposamenak aurkeztu beharko dituzte martxoaren 20a baino lehen [encuentros@navarra.es](mailto:encuentros@navarra.es) helbidean edo, eskaera-orriarekin eta inskripzio fitxarekin batera, Nafarroako Gazteriaren Institutuaren Erregistroan (Yanguas y Miranda, 27 behea, 31003 Iruña), Nafarroako Gobernuaren edozein erregistro-bulegotan, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako lekue-tan (16. artikulua). Informazio gehiago [juventudnavarra.es](http://juventudnavarra.es).

## OHARRAK

**Konposta eskuragai:** Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuak jakinarazi du edonor har dezakeela konpost Arbizuko UtzubarEKOgune-ko konpost plantatik.

Astegunetan 08:00etatik 15:00etara joan daiteke. Nondik hartu jakiteko zerbitzuaren bulegotik pasa behar da. Zakuak eramatea gomendatzen da. Konpost gurdikadak ere eraman daitezke.

**Ehiza barrutia eratzeko proiektua:** Altsasuko Udalak udalerrian ehiza barrutia sortzea erabaki du, espedita udal-errian dago ikusgai. Barrutian beraie lurrak sartzeari espresuki uko egiteko epea martxoaren 8ra arte dago.

**Uharte Arakilgo Pauso-ka haur eskolan aurre-matrikula:** Martxoaren 1etik 15era, biak barne, aurrematrikula egiteko aukera egonen da.

**Kubarekin elkartasuna kanpaina berria:** MESC (Kubarekin Elkartasuna Estatu mailako Mugimendua) en barruan dauden erakundeek abiatu duten "Tona elkartasun" kanpainaren helburua Kubara kontedoreetan behar dituzten materialak bidaltzea du helburu. 2022ko otsailaren 7an 60 urte bete dira Kubaren aurkako Blokeoa "legalk" hasi zela. Materiala erosi ahal izateko zure aportazioa egin nahi baduzu MESC-en barruan gertuen dugun Euskadi-Kuba erakundearen kontu korrantean egin dezakezu: ES35 3035 0134 43 1340059271 (Caja Laboral). "Campaña toneladas" eta zure izen abizenak zehaztu diru sarrera egiten duzunean. [iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus) [www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)

## JAIOTZAK

• **Mikel Martinez Carballeda**, otsailaren 23an Altsasun

## HERIOTZAK

• **Cayetana Arbizu Cadreita**, otsailaren 22an Ziordian


INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

## Jarri zure iragarki laburra!


948 56 42 75  
[iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)  
[www.guaixe.eus/iragarkiak](http://www.guaixe.eus/iragarkiak)

## EGURALDIA ASTEBURUAN

## Ostirala, 4




## Igandea, 6



## Larunbata, 5



## Astelehena, 7



**ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75**  
[edo.eskelak@guaixe.eus](mailto:edo.eskelak@guaixe.eus)

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

**IZARRA**  
HEMEN, ZURE ONDOAN AGÜ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK  
ALTSASU Santa Cruz, 6  
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 - [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

# IRACHE

## tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

## "Betidanik"

☎ 948 19 70 70  
📧 @Grupolrache  
📱 Grupolrache  
🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



# Sakanako Herri Eskolak:



**Aurrematrikulazio epea  
zabalik  
Martxoaren 7tik 11ra!**

**Ongi etorri Sakanako  
Herri Eskoletara!**



**Irurtzun, Uharte-Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Iturmendi, Urdiain, Altsasu eta Olaztiko**

## **Herri Eskolak**





Villatuertako lasterketan saritutako guztiak. UTZITAKOIA

## Txirrindulari sakandarrek goitik hasi dute denboraldia

**TXIRRINDULARITZA** Mikel Unzillak irabazi zuen denboraldiko lehen lasterketa, Villatuertan

Asteburuan hasi zen junior mailako txirrindularitza denboraldia, Villatuertan. Txirrindulari sakandarrek sekulako erakustaldia eman zuten eta badirudi aurten ere Sakana Group-Aralar eta Quesos Burunda-Albeniz taldeak gorenean ibiliko direla.

Sakana Group-Aralarrek lasterketa gorabeheratsua oso ongi irakurri zuen. Aurten talde la-kuntzarrean debutatu duen Mikel Unzillak talde lana borobildu zuen, helmugara batera iritsi zen hirukoan etxarriarra gailendu baitzen (1:48:34), Lizarteko Iñaki Ordokiren eta Alimcoko

Imanol Aceñaren aurretik. Top-Tenean beste bi taldekide sailkatu ziren, Aimar Tadeo bosgarren eta Unai Garro seigarren, 44 segundora.

Talde onenaren saria Sakana Group-Aralarrek jaso zuen, mendiko saria Sakana Groupeko Aritz Oiarbidek eta tartekako helmugaren saria Quesos Albeniz-Burundako Ander Villalobosek.

**Burundaren aurkezpena etzi** Quesos Albeniz-Burunda taldeak igandean egingo du denboraldiko aurkezpena, 16:30ean, Altsasuko Iortia Kultura Gunean.



KERN PHARMA

## Arrietaren lehen saria

**TXIRRINDULARITZA** Alejandro Valverde beterranoak irabazitako Galiziako O Gran Camiño itzulian Igor Arrietak txirrindulari gazte onenaren saria jaso zuen. 19 urteko uharte arakildarrak lasterketan eroso sentitu zela eta profesionalen mailak eskatzen duen azkartasunari egokitzen ari dela aitortu zuen. Indurain Saria eta Itzulia prestatuko ditu orain.

# Zabaleta vs Martija, tentsio handia Bizkaian

**PILOTA** Asteburuan hasiko da Binakako finalerdietako ligaxka eta bi atzelari arakildarren arteko borroka hartuko du Bilboko pilotalekuak. Finalerdiko ligaxka ongi hasi nahi dute bi bikoek, azken txanpan akatsak garesti ordaintzen direlako

**Maidar Betelu Ganboa SAKANA** Eta berriro zerotik hasiera. Binakako Pilota Txapelketako hasierako ligaxka eta play-offak jokatu eta gero, lau bikote sailkatu dira finalerdietako ligaxkarako, eta elkarren kontrako hiru partida oso gogor dituzte aurretik. Lehen jardunalditik ongi hastea da erronka, final handira sailkatzeko bide malakartsu horretan oso akats gutxi egin baitaitezke.

Hasierako ligaxkako lehen bi bikoak, Altuna III.a-Martija eta Elezkan-Zabaleta elkarren kontra lehiatuko dira igandean Bilboko Bizkaia pilotalekuan. Beraiek dira, agian, finalera heltzeko bikote faboritoak, gainontzeko bikoak baina koska bat gorago daudelako, baina ligaxka honetan ez da ezer gertatuztat eman behar. Igandean lehen mailako norgehiagoka estua espero da. Batetik, bi atzelari arakildarren arteko borroka gogorra, elkarren artean oso ongi ezagu-



Lehia estua espero da. GORKA ESTRADA

tzen duten arerio lagun handiena, eta, bestetik, Altunaren eta Elezkanoren arteko aurreko koadroetako dantza. Zabaletak faboritoen balantza bere aldera mugitzen du ia beti, egungo atzelaririk osoena eta onena dela

esan daitekeelako, baina Martijak behetik gora egin du nabarmen, konfiantzarekin dago eta azken partidetan maila ikusgarria izan duen Altunaren laguntzarekin, edozer lortzeko gai dira. Beraz, uste baino irekiagoa dago lehia.

Finalerdietako lehen jardunaldiko beste partida larunbatean jokatu dute Lasok eta Imazek Irribarriaren eta Rezustaren kontra, ziurrenik mukuru egongo den Labriten. Hau ere lehia estua izango dela espero da. Bombonerako azti berriak, Lasok, zaleak bere alde izango ditu, baina Irribarria eta Rezusta konfiantza handiz iritsi dira finalerdietara eta lehia oso borrokatua espero da.

### Bakaikoa, zain

Promozio mailan asteburuan finalerdietarako play-offak jokatuko dira. Joanes Bakaikoa finalerdietan sartuko da lehian, datorren astean.



NAFARROAKO GOBERNUA

## Nafarroako Emakume Master Cup, Sakanara

**PILOTA** II. Nafarroako Foru Komunitatea Emakume Master Cup Torneoa maiatzean eta ekainean jokatuko da, bi modalitatetan: esku pilota mistoa eta pilota goxua, eta paleta goma. Ahalik eta emakume gehienek parte hartzea da erronka, eta txapelketan izena

ematera animatu dituzte pilotariak eta palistak. Martxoaren 17ra arte eman daiteke izena. Ekitaldian Irati Igoa palista eta Javier Olló Altsasuko alkatea izan ziren, paleta gomako torneoko finalak ekainaren 19an Altsasun jokatuko direlako.



# Ramirez-Granger erronka zoragarria

**SASKIBALOIA** Imanol Ramirez Santano altsasuarrak Bitcit Baskonia taldeko Jayson Grangerren erronka berezia egiteko proposamena onartu, eta esperientzia ahaztezina bizi izan zuen Baskoniako bere jokalaria faboritoarekin

## Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Imanol Ramirez Santano altsasuarrak 13 urte ditu eta Altsasuko CBASK taldeko jokalaria da. Base eskolta da, joko antolatzaileria. Aurten kategoria berria mustu du eta aurre-infantil mailan ari da lehiatzen. Sailkapenean bigarren da CBASK, Arenas liderrarekin borrokan. Bitartean, Nafarroako selekzioko hautaketa eta entrenamendu probak hasi ditu Ramirezek. Izan ere, Nafarroako saskibaloiko selekzioak sortzeko klubek euren jokalaria nabarmenenak bidaltzen dituzte federazioko entrenamendu berezietara eta entrenamendu prozesu luze baten ondoren hautatzen dira selekzioko jokariak. Joan zen urtean selekzioko hautatua izan zen eta Espainiako Minibasket Txapelketan aritu zen. Hirugarren sailkatu zen Nafarroa. "Aurten haurren mailara igo naiz eta 2023ko Nafarroako haur mailako selekzioa osatzeko entrenatzen hasi naiz. Ni naiz CBASK-eko bakarra. Zaila izango da, baina ea entrenamenduetan aurrera egin eta selekzioan aritzeko aukera dudana" azaldu du Imanolek. Aurtengoa urte berezia da, jokatzear gain, arbitratzea ere dagokielako. "Parte hartze arbitrajea egitea dagokigu. Partidak laurden bat talde bateko jokalaria batek epaitzen du, hurrengo laurdena beste taldeko batek eta horrela, txandakatu. Niri ere epaitzea tokatuko zait. Nik asko arbitratzen dut" nabarmendu du.

## Topaketa zirrargarria

Otsailaren 17an Imanol Ramirezek erronka berezia egin zuen Bitcit Baskoniako Jayson Grangerrekin. Baskoniak sare sozialean bidez luzatzen dituen erronkak onartzu hasi zen guztia. "Bote batzuk egitea eta hiruko jaurtiketak egitea zen euren proposamena. Halako erronkak gustuko ditudanez, nire lana grabatu –



Jayson Granger eta Imanol Ramirez, Buesa Arenan egindako erronkan. BASKONIA

## "GRANGERREK KAMISETA ETA SARRERAK OPARITU ZIZKIDAN" IMANOL RAMIREZ

aulki batean eserita egin nuen boteko proba eta uste dut hiruko hiruko egin nituela, eta Baskoniara bidali genuen" aipatu du Imanolek. Azaroan Twitter bidez bidalitako bideoa jaso zuen. "Bideoan Baskoniako kapitain Jayson Grangerrek Buesa Arenara gonbidatu ninduen, berarekin erronka berezi bat egitera. Eta ni poz-oz jarri nintzen" aitortu du Ramirezek. Baskoniako bazkideak dira ramirezarrak, eta Granger da Baskoniako Imanolen jokalaria gustukoena, basea baita, bera bezala.

Otsailaren 17an izan zen erronka. "Gu Buesa Arenan goian kokatzen gara, eta kantxatik pabilioia oso handia ikusten zen. Oso hutsa eta handia, metro asko dira" dio Ramirezek. 40 minutu inguru egon zen bertan, gurasoak eta arreba txikia ondoan zituela. "Granger etorri zen eta agurtu

ninduen. Oso jatorra da. Baskoniako kamiseta oparitu zidan, nire izenarekin, eta sarrera batzuk, hain zuzen ere martxoaren 8an Baskoniak Estambuleko Anadolu Efes taldearen kontra EuroLigan jokatu duen partidarako sarrerak, baina kantxa ondokik ikusteko, behe-behetik. Oso partida ona da, talde turkiarra joan zen urteko EuroLigako txapeliduna baita" aipatu du Ramirezek. Esperientzia "zirrargarria" izan zela dio. "Tiro batzuk eta bote batzuk egin genituen, eta gure arteko partidatxo bat jokatu. Galdetu zidan ea nahiago nuen nik zuzenean saskiratzea edo pasea egin eta berak saskiratzea eta bi modutara aritu ginen. Askok entrenatzeko esan zidan, horrela ikasten dela. Gero Baskoniak entrenamendua zenez, ordu erdi inguru egon ginen" kontatu du base gazteak. Lotsatuta ote zegoen galdetuta, ez du zalantzarik. "Halako esperientzia eskaini zidatenez, nola lotsatuko naiz?". Grangerrekin bizitako esperientzia zoragarria albo batera utzita, selekzioko probetan aurrera egitea eta CBASK-ek aurre-infantil ligan ahalik eta lan onena egitea dira xedeak.



Mikel Astiz Erro, joan zen urteko Altsasuko Duatloian. UTZITAKOA

## Mikel Astizek Basaburuako Duatloia irabazi du

**DUATLOIA** Martxoaren 19an Altsasuko Duatloia eta 26an Arbizukoa jokatu dira. Izena emateak, zabalik

Duatloien denboraldia hasi berri da. Larunbatean II. Basaburu Duatloia hartu zuen Jauntsaratsok eta Mikel Astiz Erro (San Juan-Donibane) denboraldiko lehen garaipena lortu zuen. Probako 85 partaideek 5 km korrika, 24,5 km bizikletan eta 2,5 km korrika osatu behar izan zituzten. Astizek txirringularitza atalean lortu zuen aurreratzea eta helmutagari bakarrik heltzeko nahikoa tartea ateratzea (1:09:29). Ihabarkoak 14 segundo atera zituzten Atarratze Rotari. Emakumezkoetan Sara Modrego gailendu zen (1:23:03). Sakana Triatloi Taldeko Juan Luis Maiza 23. sartu zen, Felix Benjumea 27., eta Juan Carlos Gomez 60.

Nafarroako Kirol Jokoetan, benjaminetan Anai Mazkianaren bigarren izan zen, kimuetan Unax Mazkianaren laugarren, haurretan emakumezkoetan Eider Mazkianaren laugarren eta gizonzkoetan

Oihan Andueza hirugarren, eta kadeteetan Mikel Arrizabalaga zazpigarren.

## Altsasu eta Arbizu ate joka

Martxoan jokatu dira Altsasu eta Arbizuko duatloiak. Goiztiarrena Altsasuko Duatloia izan dena, martxoaren 19an jokatu dena. Goizeko 10:30etik aurrera Nafarroako Kirol Jokoen proben txanda izango da eta 15:45ean nagusien XI. Altsasuko Duatloia abiatuko da, Foru Plazatik. Lasterketak ohiko formatua berreskuratuko du, pandemiagatik joan zen urtean Ibarrea industri gunean jokatu baitzen. Gehienez ere 250 partaide onartuko dira. Arbizuko Duatloia martxoaren 26an jokatu da eta aldi berean Nafarroako Distantzia Motzeko Txapelketa izan dena. Bi proben izena ematea zabalik dago Nafarroako Triatloi Federazioko webgunean.

## FUTBOLA Nafarroako Federazioko futbol partidak bueltan dira

Ihoteak zirela eta, gizonzkoen Preferente eta Erregional mailan ez zen liga jardunaldirik jokatu eta Gizonzkoen Lehen Maila Autonomoan atsedenaldia zegoen Lagun Arteari. Hortaz, soilik Emakumezkoen Lehen Maila Autonomikoan Altsasuk Lagunaken kontra 1 eta 2 galdutako partida jokatu zen. Larunbatean, 16:00etan, Cortesen jo-

katuko du Altsasuk, sailkapenean arerio zuzena duen Cortes taldearen kontra.

Gizonzkoen kategorian, Lehen Maila Autonomikoan jaitsiera postuetan dagoen Lakuntzako Lagun Arteak Lourdes taldearen kontra jokatu du igandean, 16:30ean, Tuteran. Preferente mailan Etxarri Aranatzek San Miguel izango du arerio igandean, 16:30ean, Larragan, eta Erregional mailan Donezteberen kontra ariko da Altsasu igandean, 16:00etan.



# Kerobiaren unibertsoak

Iruñeko taldea sortu zutenetik 20 urte bete dira, eta, atsedean tarte baten ondoren, 'Hilak' diskarekin eta kontzertu birarekin itzuli da. Taldekide berrien artean Lur Larraza Lopez gitarrajole etxarriarra dago.

**Erkuden Ruiz Barroso** ETXARRI ARANATZ

Lurra desagertu da eta gizadia globo kosmikoetan bizitzera joan da. Globo bakoitzak istorio bat du kontatzeko, eta horretaz Kerobia taldea arduratu da. "Kerobiak beti izan du zerbait berezia eta beti istorio bat kontatzen du, kontaketa bat dago egiten duen guztiaren atzean". Lur Larraza Lopez etxarriarrak aspaldi ezagutzen zuen taldea, 2006. urtearen inguruan haiekin lanean hasi zelako, Gor disketxean lan egiten zuenean. Disketxearekin *Rose Escarlot* diska kaleratu zuten, taldearen bigarrena. "Beraiekin aritzen nintzen *road manager* moduan; han ezagutu nituen".

Taldea sortu zutenetik 20 urte pasa da, baita Larrazak taldea ezagutu zuenetik ere "denbora asko" pasa da. "Baina oso gustuko nuen musika zela oroitzapena daukat. Garai horretan oso proposamen interesagarria egiten zutela iruditzen zitzaidan, eta gaur egun ere, euskal pop soka horrekin jarratzen dute". Kerobiaren istorioak eta soinua bereziak dira, estilo oso propioa dute. "Garai horretan, 2000. hamarkadaren hasieran, talde desberdinak agertzen ari ziren, baina estilo horretan ez". Zuzenekoetan duten "posea" ere nabarmendu du Larrazak.

## Kosmoa

*Rose Escarlot* diskoaren ondoren *Materia organikoa eta gainerakoak* (2008), *Papera eta kartoia* (2009) eta *Ontziak* (2010) disko trilogia kaleratu zuen Kerobiak. 2008. urtean ere Y las Ardillas Magicas disketxea sortu zuten, eta 2012. urtean *Supernova diskoa crowfounding bidez sortu zuten*. 2014ean *gero arte* esatea

erabaki zuten. "Urte batzuk haiekin lanean egon nintzen, baina gero bakoitzak beste ibilbide bat hartu zuen, haiek ere utzi zuten...". Taldea desegin zenean, nahiz eta oso ongi ez duen oroitzen, "penarekin" hartu zuen erabakia Larrazak: "ordurako lagunak nituen eta ni beti oso ondo egon naiz beraiekin, oso gustura ibili naiz lanean". Baina, azekenean, talde batean egoteak asko eskatzen duela esan du: "energia asko, sakrifizio asko...".

Duela hiru bat urte Xabi Bandini, Kerobia taldeko abeslaria eta konpositorea, musika eszenara itzuli zen. *Biba!* proiektua martxan jarri zuen, eta Larraza proiektuaren parte zen. Momentu batean Bandinik taldekide izatea proposatu zion, eta, azkenean, Larrazak baietz esan zuen. Perkusio jotzailea zen. Pandemiak bigarren diskoaren aurkezpenarekin harrapatu zituen.

"Istorio guztia hasi zen Kerobiak 20 urte betetzen zituelako". Momentu horretan, 2021. urtean, Xabi Bandinik eta Alberto Isabak *Gertutik* deitutako ikuskizun bat zuten, eta Vianan ikuskizuna egin ondoren taldearen urteurrenaz gogoratu ziren. "Zerbait egin behar genuela aztertzen hasi ziren, eta hiru kontzertu egiteko aukera sortu zen". Taldekide zaharrak urteurren birako kontzertuak egiteko prest zeuden. "Horrela sortu zen itzultzearen ideia, 20 urteurrenaga-

**"KEROBIAK BETI IZAN DU ZERBAIT BEREZIA, BETI ISTORIO BAT KONTATZEN DU"**

tik zenbait kontzertu emateko intentzioarekin".

20. urteurreneko hiru kontzertuak oso arrakastatsuak izan ziren. "Espero genuena baino gehiago, lagun batzuk elkartuko ginela uste genuen, baina ez genuen espero etorri zen guztia. Egia da hito bat izan zela". Kerobiaren estilo eta unibertso bereziak berriz ikusteko gogoia zegoen. "Aurreko bateria jotzaileak esan omen zuen ikusita funtzionatzen zuela ea ez zuten talde berriz hartzen, indarberritzen, eta Kerobia berriz hasten". Eta horrela izan zen, nahiz eta hasiera batean Xabi Bandinik ez zuen oso argi ikusten. Baina, azkenean, Kerobia itzuli da.

## Imaginarioa

Larrazari baietz esatea ere kostatu zitzaion. "Gehien bat nire lanbidearekin talka egiten duela batzuetan, eta gauzak oso ondo ordenatu behar izaten ditut, oraindik ere". Kerobian "errebotean" sartu zela azaldu du, "musikari berriei planteatu ziguten aukera hori zegoela, eta, azkenean, aurrera egin nuen". Taldean sartzen "oso ondo" joan dela esan du Larrazak, "imaginario bisuala ezagutzen nuelako". Xabi Bandini ahotsa eta gitarristak, Carlos Colina teklatu jotzaileak, Alberto Isaba baxuak, Eneko Requetibate bateriak eta Larrazak osatzen dute itzulera- ren talde berria.

"Kerobiaren unibertsoak oso bitxiak dira. Oraingoan mundua amaitu da, eta badaude globo kosmiko batzuk unibertsoan. Batzuk ezin dira mugitu, beste bat galdu bat...". Errealitatearekin "puntu bat" duela azaldu du musikari etxarriarrak: "Globo batean gerra zegoen, bestea zo-



Kerobia taldea; goian, ezkerretik hirugarrena Lur Larraza. UTZITAKOIA

riotsu bizi dira, beste batean galdu dira...". Gizartearen isplu moduko bat.

Kerobia beti "gauzak oso politak eta detailearekin" egiten saiatu dela azaldu du Larrazak. "Ezagutzen zutenek eskaintzen dioten maitasun hori nabaritzen dute". Hogeigarren urteurrenerako Konstalazioa binilo berezia kaleratu zuten. Bertan Kerobiaren ibilbidearen abesti garrantzitsuenak bildu zituzten. Harekin batera *Hondakinak* diskoa kaleratu zuten ere, bere garaian diskoetatik kanpo gelditu ziren

abestien bilduma. "Batzuk lokalean grabatuta daude, mikro bakar batekin".

*Hilak* deitzen da Kerobiaren itzulera diskoa eta zortzi abestiz osatuta dago. Martxoaren 12an birarekin hasiko dira, Bilboko Kafe Antzokian. Ondoren, martxoaren 18an Andoingo Basteron joko dute, 20an Ondarroako Beikozinin eta apirilaren 8an eta 9an Iruñeko Zentralen eta Gasteizko Jimmy Jazzen ariko dira. Bira apirilaren 23an amaituko dute, momentuz, Donostiako Dokan.





Anne Azkona Unanua, eskuinean, Hiriberriko txirrindulari taldeko kideekin, Arakil maillota jantzita duela. UTZITAKOA

# "Arakil kirol arroparekin berehala ikusten zaigu"

Arakil kirol arropa jantzi nahi dutenek Arakilgo Udaleko webgunean eskaria egiteko garaiz daude. Hala egin zuen Anne Azkona Unanua txirrindulari hiriberriarrak, eta erosketarekin "oso pozik" dagoela adierazi du. Diseinu polita, eta eskaintza anitza da

## Maidar Betelu Ganboa HIRIBERRI

### 1 Dagoeneko mustu duzu eskatutako arropa.

Enkargua egin, udaletxean arropa jaso, eta astebetera, eguraldiak hobetu zuenean mustu nuen.

### 2 Arakil kirol arropako eskaintza oso zabala da, guztia erosteko tentazioa sortzen duena.

Bai, guztia nuen gustuko, baina bizikletan ibiltzen naizenez, txirrindularitza arroparen alde egin nuen eta neguko culotte luzea erosi nuen, maillot luzea, eta baita ere azpitik jartzeko mauka motzeko maillota ere. Material ona da, kalitatearen aldetik oso erosketara ona. Orain arte udan ibiltzen nintzen bizikletan, baina zaletasuna piztu

zait eta neguan ibiltzeko arropa behar nuen. Beraz, Arakilgo Udalaren ekimen hau aukera paregabea izan da. Oso pozik nago. Haizea mozteko eta babes-teko, primerako materiala da eta oso gustura ibili naiz neguan.

### 3 Diseinu oso bizia du. Txuria, beltza, gorria eta berdea, aurrean Arakilgo armarrria eta atzean Na-

### farroako ikurra eta Arakilgo herrien zerrenda.

Maillot hau oso erraza da detektatzeko: urrutitik ikusten da. Berehala identifikatzen zaigu.

### 4 Hau ez da Arakil arropa egin den lehen aldia. Aurretik ere beste mailloten bat egin omen zen.

Bai, baina ez dut gogoratzen aurreko diseinua nolakoa zen.

### 5 Afizionatu gisa ibiltzen zara edo txirrindularitza talderen batean lehiatzen zara?

Afizionatu hutsa naiz, bakarrik neure buruarekin lehiatzen naiz (kar, kar...). Hiriberrin nahiko kirolariak gara eta larunbat goizetan iturrian bildu eta bizikleta buelta egiten dugu. Zortzi pertsona inguru elkartzen gara, 20-30 urte bitartekoak. Gurea herri txikia da, baina zaletu gazte asko gaude. Ni naiz emakume bakarra. Talde polita gara, eta oso gustura nago beraiekin.

### 6 Nondik ibiltzen zarete?

Lizarrustitik Ataunera jaisten gara, Ziako buelta, Leitza, Ultzama, Lizarreria... denetatik, eguraldiaren arabera. Joan zen urtean La Peluso martxa egin genuen gure kabuz, eta hori izan da kilometro gehien egin ditudan eguna, 90 km. Bestetan 60 km, 50 km... tarte horretan ibiltzen gara. Bizikletan ibiltzeko bailara politean eta aproposean bizi gara, ez direlako auto asko ibiltzen.

### 7 Astean zehar zure kabuz ateratzen al zara?

Astean zehar nahi nukeena baino gutxiago ibiltzen naiz, lanegatik ez dudalako hain erraza, baina gehiago ateratzea gustatuko litzaidake, taldekoak gehia-

gotan ateratzen badira zu atzean gelditzen hasten zarelako. Ea uda aldera aukera gehiago dudan.

### 8 Bakarrik edo taldean nahiago?

Taldean nahiago, babestuago zaudelako eta bide erdian geldialdia egiten dugulako pintxo bat eta kaña bat hartzera. Hori ere kirolaren zatia da.

### 9 Hiriberriko taldekide guztiek Arakil maillota erabiltzen al duzue?

Esango nuke ia gehienok erosi dugula Arakil kirol materiala.

### 10 Lehen txirrindularitza materiala oinarritzekoagoa zen, baina materialean eta diseinuan sekulako aldaketa egon da. Moda kontua bilakatu da.

Egungo maillotak oso deigarriak dira. Guretako garrantzitsua da maillotak ikusgarriak izatea, errepidean gu nabarmentzea eta ongi ikustea oso garrantzitsua delako. Bestalde, ibiltzearen poderioz beharrak ikusten dituzu. Orain neguan ateratzera animatu naizela, zapaten gainetik jartzeko botinak erosi ditut, behatzak ez izozteko. Pixkanaka kirol kit-a osatzen duzu.

### 11 Arakil kirol arropa egiteko ekimena zer iruditzen zaizu?

Arakil bailara ezagutarazteko eta antzemateko primerakoa. Gainera, kirol arropa oso polita da. Mendiko arropa eta txirrindularitarako arropa da, negurako eta udarako, diseinu politarekin. Katalogoa Arakilgo Udaleko webgunean dago ikusgai, baita eskariak egiteko modua. Nik jendea animatzen dut. Material ona da, edozein kirol egiten dutenendako aproposa.

## 2022-2023

# matrikulazio kanpaina

Beharrezko material guztiarekin lagunduko dizuegu  
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

619 821 436  
[info@gkomunikazioa.eus](mailto:info@gkomunikazioa.eus)  
[www.gkomunikazioa.eus](http://www.gkomunikazioa.eus)  
 Foru plaza, 23-1. Altsasu